


JARDUERA NATUTIKOA: DAD Kutzako bazkideei Bizkaiko Golkoan belaontzian nabigatzeko aukera eskaintzen zaie, gauzez eta egunez itsasoan belaz ibiltzea esperimenta dezaten, nahiz eta ez izan aurretiko ezaupide edo eskarmenturik. Halaber, Kutzabankeko bazkideek ere parte hartu ahal izango dute belaontzia baldin badute, edo are hobe, estropadan izena eman eta bere belaontzia duen lagun bat baldin badute.



Ekainaren 7 eta 8an: La Victoire IV itsasaldia/estropada

Datorren ekainaren 8an, larunbatean, eta Cercle Nautique du Verdon-ek eta HN Hondarribiko Nabigatzaileak-ek elkarrekin antolatuta, "La Victoire" itsasaldiaren /estropadaren laugarren edizioa izango da.

Itsasaldi/estropada honek "La Victoire" izeneko belaontzian Lafayette markesak (frantziar eta amerikar heroi nazionalak) 1777. urtean Bordele eta Pasaia artean egindako itsasketa gogorarazten du; hura ingelesez aurka amerikar independentistek laguntzeko Estatu Batuetara egin zuen lehen bidaiaren aurretiko urratsa izan zen. Bigarren bidaia L'Hermione-rekin egin zuen, eta hau 2018an egon zen Pasaian.



Itsasketa: Santurtziko *Lamarenalma* Nautikako Eskolako belaontzietan; Eskola hau Eusko Jaurlaritzak eta Merkataritza Nabigazioaren Zuzendaritza Nagusiak homologatua da. Eskarmentu handiko patroiekin, segurtasuneko eta ontziratzeko legezko neurri guztiak beteta. 8/12 tripulatzaileraino belaontzi bakoitzeko (luzeraren arabera). Itsasaldia beste belaontzi batzuekin batera egingo da (gutxi gorabehera 25). Horietako baten argazkia doa, 2017an eta 2018an parte hartu zuen DAD Kutzako bazkideekin.



Egitaraua:

Ekainaren 7a, ostirala: Autobusez irten Donostiatik 16:00ak aldera.

Ekainaren 7a, ostirala: 20:00ak inguruan Port Medoc-era (La Gironde) iritsi. Afaria eskualdeko (Medoc-Bordele) produktu eta ardoarekin Port Medoc-en. Lo belaontzietan egingo da.

Ekainaren 8a, larunbata: Eguna argitzean gosaldu ondoren, paseoa inguruetan eta zehazki Pointe de Grave, Cordouan-eko Faro Museoa eta Faroak eta Balizak ikusiko ditugu, eta Lafayetteren egungo monumentua, soldadu alemanek 1942ko maiatzaren 30ean suntsitu zuten jatorrizkoaren gainean berreraikia.

Pointe de Gravetik Cordouango Faro edo itsasargia ikusten da.

La Victoire itsasaldiko/estropadako belaontzi guztiak (denak batera) irtengo dira belaz 11:00 a.m.tik aurrera Port Medoc-etik. Itsasaldia hasiko da.

Itsasketa: 150 milia gutxi gorabehera sentsazioak partekatzeko eta itsasketa-teknikak ezagutu eta ikasteko. Nabigazioa belaz bakarrik egingo da eta gutxi gorabehera 30/35 orduko iraupena izango du.

Ekainaren 9a, igandea: Pasaiara goizean zehar iritsiko gara. 17:00ak aldera parte hartu duten belaontzi guztiei sari-ematea, lunch eta edariekin, eta marinel onak bezala topa egingo dute bertan.



Prezioa pertsonako: 400 €. (DAD-kutxak diruz lagunduko du)

Argibide gehiago: JOSE LUIS ARTOLA Tfno 618-323963